

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Legazpiko Agenda 21eko Foroa 2011ko apirilaren 14an egindako tailerraren akta

Tailerraren laburpena, 2 lerrotan:

- *Eguna, ordua, tokia:* 2011ko apirilaren 14an, 18:30etik 20:00etara, Legazpiko udaletxean.
- *Parte-hartzaile kopurua:* 19 pertsona.
- *Aztertu den gaia:* Legazpiko ikastetxeek eta gazteek aurten Eskola Agenda 21 programaren barruan mugikortasunaren gaia landu dute. Zeintzuk dira lan horren emaitzak eta hartu dituzten konpromisoak? Forotik, osatu edo aberastu ditzakegu konpromiso horiek?

Gaur, 2011ko apirilaren 14an, *Eskola Agenda 21 programaren barruan udalerriko ikastetxeek egin duten lana ezagutzeko* urtero Legazpiko Agenda 21eko Foroak egiten duen tailerra egin dugu.

Horretarako gurekin izan dira 4 gazte, Legazpiko ikastetxeen izenean. Eta elkarrekin zuku ederra atera diogu tailerrean eman dugun ordu eta erdiari. Zertan?: Legazpiko mugikortasunari buruz gazteek egin duten lanetik eta esperientziatik ikasten; hartu dituzten konpromisoak ezagutzen; eta Forotik konpromiso horiek proposamen osagarriekin osatzen.

Azken batez, tailer lasaia eta barea izan dugu, interesgarria eta oso aberasgarria. Bikain! Eta gainera, urrats berri honekin Foroaren eta iraunkortasuna lortzeko giltzarri diren beste eremuen artean (hezkuntza eremua kasu honetan) zubiak eraikitzen eta sendotzen ditugu.

Tailerreko protagonistak: 4 gazte, taldea eta mugikortasuna



Mugikortasuna

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Tailerrean 3 izan dira protagonista nabarmenak. Eta protagonista bakoitzaren ekarpenen batuketak azkeneko emaitza aberatsa izatea ahalbidetu du. Horregatik, **eskerrik asko** hauei guztiei...

- **Raul, Arantxa, Nerea eta Itsaso**, Legazpiko 4 gazte, Legazpiko Olazabal institutuaren, Haztegi ikastolaren eta Domingo Agirre eskolaren izenean etorri direnak.
- **Legazpiko Agenda 21eko Foroari**, gaur honako kideen ordezkariak izan duena:

Joxan Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) • Iñaki Mauleón (Domingo Agirre eskola) • Eugenio Gil (Korosti zikloturistak) • Isabel Vallejo (Olazabal institutoa) • Arantxa Segurola (Haztegi ikastola) • Manuel Fernández (Nagusilan) • Koro Zabaleta (Olazabal institutoa) • Pedro Barroso (Nagusilan) • Arantxa Lobo (Domingo Agirre eskola) • Juan Carlos Agirre (Olazabal institutoa) • Javier Iraeta • Rafael Gomez (Buskabaso) • Sote Plazaola (Legazpiko alkatea) • Iciar Montejo eta Zorione Aierbe (Prometea, SC).

OHARRA: gaur ezin dutela etorri adierazi dute Inma Hernandez, Legazpiko Udaleko Agenda 21eko teknikariak eta Jose Ramon Hernandez, Nagusilan elkarteak.

- Eta mugikortasuna, Legazpiko ikastetxeek 2010-2011 ikasturtean zehar Eskola Agenda 21 programaren barruan aukeratu eta landu duten gaia. Atsegin dugun gaia eta jokia ematen duena!

Ikus dezagun, jarraian, gaurko saioak eman duena landu diren edukiei dagokienez.

Legazpiko ikastetxeak eta mugikortasunaren azterketa. Hartutako konpromisoak eta Legazpiko Udalari egindako proposamenak

Esan dugunez, 2010-2011 ikasturtean zehar Legazpiko ikastetxeek mugikortasunaren gaia landu dute Eskola Agenda 21eko programaren barruan.

Laburbilduz, hauxe izan da jarraitu duten prozesua:



- Ikastetxe bakoitzak, hezkuntza-maila desberdinetan, Legazpin dauden mugikortasun-alderdi desberdinak aztertu ditu.
- Adin-tarte bakoitzak, egindako azterketaren arabera, hobetzeko hainbat konpromiso hartu ditu mugikortasun iraunkorra lortze aldera.
- Eta era berean, zentzu berean proposamenak eta eskariak zuzendu dizkiote Udalari.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Urratsez urrats, prozesuari ekingo diogu!

● Mugikortasunaren azterketa Legazpin eta ikastetxeetako konpromisoak


Ikus dezagun, lehenbizi, ikasleek egin duten azterketaren laburpena eta hartu dituzten konpromisoak:



Hezkuntza-maila	Mugikortasuna Legazpin		
	Zer aztertu da?	Emaitzak	Hartutako konpromisoak
Lehen Hezkuntzako 1. zikloa	<ul style="list-style-type: none"> Eskolarako bidea. Eskolara nola joaten diren eta norekin. 	<ul style="list-style-type: none"> Oinez joanez gero, hobekuntzak lortuko lirateke mugikortasunean eta osasunean. 	<ul style="list-style-type: none"> Ahal denean beti oinez joango dira, bai eskolara joateko bai Legazpin ibiltzeko.
Lehen Hezkuntzako 2. zikloa	<ul style="list-style-type: none"> Eskolarako bidea eta bide-segurtasuneko arauak. 	<ul style="list-style-type: none"> Eskolarako bidean hobe daitezkeen gaiak daude oinez joan daitezela. Ez dituzte arau guztiak betetzen. 	<ul style="list-style-type: none"> Bide-segurtasuneko arauak errespetatuko dituzte (adibidez bidegorria ondo erabili, etab.).
Lehen Hezkuntzako 3. zikloa	<ul style="list-style-type: none"> Eskolarako bidea mugikortasun txikia dutenentzat. Bidegorriaren erabilera. Hainbat kale eta auzoren egoera. 	<ul style="list-style-type: none"> Eskolarako bidea zailtasunak daude mugikortasun txikia dutenentzat (jaitsi gabeko espaloiak, soinurik gabeko semaforoak...). 	<ul style="list-style-type: none"> Mugikortasun txikia duten eta Legazpin ibiltzeko zailtasunak dituzten pertsonen lagundu.
DBH-ko 1. zikloa	<ul style="list-style-type: none"> Legazpiko Mugikortasun iraunkorrerako Plana eta bere garapena (egindako ekintzak, martxan daudenak, hasi gabe daudenak). Olazabal institututik kiroldegira joateko bidearen egoera. 	<ul style="list-style-type: none"> Ekintza asko burutu dira dagoeneko (Patrizio Etxeberria kalean 3. Eremua ezarri, bidegorria...). Beste batzuk egiteko daude: bizikletak alokatzeko zerbitzua, lurpeko aparkalekua Laubide auzoan... Olazabal institututik kiroldegira doan bidean hobetzeko gauzak daude: irisgarritasuna eta espaloia falta. 	<ul style="list-style-type: none"> Udalerrian oinez edo bizikletaz ibiliko dira eta bestelako joan-etorriekin, ahal bada, garraio publikoa erabiliko dute.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Hezkuntza-maila	Mugikortasuna Legazpin		
	Zer aztertu da?	Emaitzak	Hartutako konpromisoak
DEBH-ko 2. eta 3. zikloa	<ul style="list-style-type: none"> • Olazabal instituturako sarbideak. • Eskualdeko beste herrietarako joateko garraio publikoa eta mugitzeko ohiturak. • Juanastegiko igogailuaren erabilera. 	<ul style="list-style-type: none"> • Institutuko sarrera badago zer hobetu: eskailerak, espaloiak, ... • Trena eta autobusa sarritan ordu berean dira. • Haur eta gazte batzuk ez dute igogailua behar bezala erabiltzen. 	<ul style="list-style-type: none"> • Igogailua behar denean bakarrik erabili eta behar bezala.
Batxilergoa	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteen mugikortasun-ohiturak. • Mugikortasun iraunkorraren kanpainarako logoa diseinatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Logotipo irabazlea aukeratu dute aho batez. Hauxe da:  <ul style="list-style-type: none"> • Gazte batzuk autoa erabiltzen dute eta ez garraio publikoa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Autoa partekatuko dute, batez ere partiduetara joateko.

● Ikastetxeek Udalari egin dizkioten proposamenak/eskariak

Azterketaren emaitzen arabera, eta hartu diren **konpromiso**ez gain, zeintzuk dira **Udalari** egiten dizkioten eskariak / proposamenak? Honakoak dira:

● **Kaleen egoera egokitzea:**

- Behar den tokian espaloiak egin edo egokitu (adibidez, Olazabal instituturako bideetan).
- Oinezkoen pasabideak ongi margotu eta ikastetxeetan sartzeko eta irteteko orduetan udaltzainek zain ditzatela pasabideak.
- Eskailerak dauden tokiak egokitu (adibidez, Itxaropen auzoan, Ikastolara joateko bidean).
- San Ignazio auzoan ispilua jarri (Lenbur ondoan), oinezkoen segurtasunerako.

● **Tren eta autobus zerbitzuak** hobetu (maiztasuna, prezioa). Geralekua geltoki bihurtu eta bertako argiak hobetu.

● **Bidegorriaren** tarte guztiak lotu, Zumarragako eta Brinkolako bidegorriak lotu eta haien egoera hobetu plaka fotovoltaikoko farolekin eta metalezko pibotekin.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

● Zorionak eta eskerrik asko gazteei!

Aurkezpena arretaz entzun ondoren, 4 gazteek taldearen zorionak jaso dituzte. Jasotako **ZORIONAK** ikastetxeetara eraman ditzatela eskatu diegu, ikasle guztiek oso lan ona egin dutelako, emaitzak kalitatezkoak direlako, konpromisoak hartu dituztelako eta oso ondo azaldu dutelako. Primeran egin duzue, mila esker!

Gainera, hainbat galdera egiteko eta haiekin hainbat hausnarketa partekatzeko aukera izan dugu. Hona hemen batzuk:

● Juanastegiko igogailua

“Ondo dago hura ongi erabiltzeko konpromisoa hartzea baina era berean inportantea da beharrezkoa denean bakarrik erabiltzea, zuek gazteak zarete eta zenbait kasutan izan ezik, ez duzue horren beharra!”.

“Gainera, agian interesgarria izango litzateke igogailuan bizikleten gorabehera arautzea”.

● Bidegorriak eta bizikletak

“Inportantea da bidegorriari lotutako jarduerak lehenestea. Are gehiago orain, krisian gaudela. Bidegorria osatzeak Zumarragaraino bizikletan joatea ahalbidetu dezakeelako, autoa hartu gabe”.

“Bestetik, egia da bizikletak aparkatzekoak falta direla eta seguruak izan daitezela (azken honetan bizikletak lapurtu dira)”.

● Eredu izan behar da azturak aldatzeko

“Azken finean, denok gara arduradun eta gure esku dago Legazpin mugikortasun iraunkorrean aurrera egitea. Konpromisoak ez dituzte ikastetxeek bakarrik hartu behar, legazpiar guztiek baizik. Eta horretarako, gure eskuetan dagoena eredu izatea da; hori da modu hobereana gure lagunek, familiakoek, bizilagunek,... gure ekintzak imitatu ditzaten”.

Eta haien erantzunekin eta taldeko elkarrizketarekin, bukatutzat eman dugu zati hau eta agur esan diegu gazteei, bihar azterketa dute eta! Beraz, ZORTE ON eta eskerrik asko gaur hemen gure artean izateko ahalegina egin duzuelako!

Udaletik eta Agenda 21eko Forotik, nola erantzun dezakegu eta nola aberats dezakegu ikastetxeek egin duten lana eta hartu dituzten konpromisoak?

Tailerraren bigarren zatian, bi galdera erantzuten ahalegindu gara:

- Forotik, nola lagundu dezakegu ikastetxeek hartu dituzten konpromisoak bete daitezen?

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- Ikastetxeek Legazpiko **Udalari** egin dizkioten proposamenak eta eskariak, jasota geratzen dira Mugikortasun Iraunkorrerako Planean?

Ikus dezagun emaitza!

- Forotik, nola lagundu dezakegu ikastetxeek hartu dituzten konpromisoak bete daitezen? Proposamenak

Hainbat proposamen otu zaizkigu, oso interesgarriak!



- **Eredu izan**

Oinez ibiltzea, mugikortasun txikia duten pertsoneri laguntzea, ...imitazioz ikasten diren jarrerak dira, besteak egiten dutela ikusiz. Beraz, Foro gisa eta legazpiar gisa hartuko dugun konpromisoa hauxe izango da: gure eremuetan (familia, lantegia, lagun taldea,...) mugikortasunaren gaian "eredu izatearen" beharra zabaltea.

Gainera, lagungarria izan daiteke "mugikortasun txikiko eguna edo astea" antolatzea, sentsibilizazio-ekintzekin.

- **Gazteentzako garraio publikoa hobetu, haiekin gaia landuz**

Ikasle gazteak gaur egun garraio publikoaren mende daude, bestelako aukerarik ez dutelako eta oso inportantea da arlo horretan eskaintza lehiakorra mantentzea, gazte horiek autoa erabiltzeko aukera izango dutenean garraio publikoaren aldeko apustua egin dezaten. Modu horretan bakarrik jarraituko dute hura erabiltzen.

Otu zaizkigun hainbat ekintza zehatz:

- Gazteekin batera, hara eta hona ibiltzeko dituzten beharrak aztertu (adibidez, "urtean izaten dituzten aisialdiko hitzordu klabeak"). Eta horren arabera, Lurraldebus enpresarekin elkarlanean, egokitutako garraio publikoaren eskaintza antolatu.
- Tren eta autobusen maiztasuna handitu (horrela bakarrik izango dira autoekin lehiatzeko gai).
- Autobusen ibilbideekin eta ordutegiekin poltsikoko liburuxka/egutegi bat egin (edo Lurraldebus enpresari eskatu) eta etxeetan nola bana daitekeen pentsatu. Esan dugun bezalaxe: *"askok ez dituzten autobusen ordutegiak ezagutzen, trenena aldiz ezagunagoa da"*.

- **Udala eredu**

Udalak ikastetxeek egin dituzten eskariak eta proposamenak bere gain hartzen baditu eta haiei erantzuten badie, lagungarria izango da hartutako konpromisoak indartzeko. Eta hori da helburua, ekintzak batzen joatea.

- **Bide-hezkuntza**

Olazabal institutuaren esperientzia ona aintzat hartuz, ikastetxeetan bide-hezkuntzari buruzko hitzaldiak antolatu udaltzainekin.

- **Igogailua**

Eslogan erraz batekin igogailua "igotzeko" bakarrik erabil dadila sustatzea; horren atzean bi helburu daude: energia murriztea eta ariketa egitea.

Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- Ikastetxeek Legazpiko Udalari egin dizkioten proposamenak eta eskariak, jasota geratzen dira Mugikortasun Iraunkorrerako Planean?

Aurkezpen baten laguntzarekin, gehienak egiteko dauden jardueretan jasota daudela ikusi dugu. Berri ona!

Laburtuz:

Legazpiko Mugikortasun Iraunkorrerako Planetik falta da egiteko...		Ikastetxeetako proposamenak eta eskariak:
Oinezkoentzat egokitu/ 30. eremua	<ul style="list-style-type: none"> • Kale Nagusia • Aizkorri kalea 	<ul style="list-style-type: none"> • Kaleen egoera egokitu. <p>OHARRA: gai honi dagokionez, Sote Plazaola alkateak espaloiak, jaisteak, kaleen zabalera,... eta horrelakoak jasota daudela Mugikortasun Planean eta, beraz, edozein egokitze-lanean edo urbanizazio berrian aplikatzen dira.</p> <p>Olazabal institutura joateko bideari dagokionez, konponbidea San Ignazio auzorako aurreikusi den hirigintza-jardueran dago.</p>
Bidegorria	<ul style="list-style-type: none"> • Zumarragarako lotura • Brinkolarako lotura • Laubide-Kiroldegia 	<ul style="list-style-type: none"> • Bidegorriaren tarte guztiak lotu, Zumarraga eta Brinkolako bidegorriak lotu eta plaka fotovoltaikoko farolak eta metalezko pibotak jarri.
Lurpeko aparkalekuak	<ul style="list-style-type: none"> • Laubide • Latxartegi 	
Autobusa	<ul style="list-style-type: none"> • Barne-autobus zerbitzua 	<ul style="list-style-type: none"> • Tren eta autobus zerbitzuak hobetu (maiztasuna, prezioa). Geralekua geltoki bihurtu eta bertako argikuntza hobetu.
Trena	<ul style="list-style-type: none"> • Geralekutik geltokira <p>OHARRA: udaletxetik Mugikortasun Planaren berri eman zaio ADIF enpresari. Erantzunaren arabera, proiektu bat egin beharko da ADIF, Foru Aldundia eta Udalaren artean.</p>	
Igogailua	<ul style="list-style-type: none"> • Juanastegi-San Martin • Urtatza • Tren-geltoki berria 	

Eta guzti horretatik, **zer da lehentasunezkoa** (dagozkion aurrekontuak ez ezagutu arren)? Taldea bat dator lehentasunezko jarduerara batzuk zehazterakoan:

- Kale Nagusia oinezkoentzat egokitu eta Aizkorri kalea 30. eremuarekin lotu
- Igogailuen gaia aztertzen jarraitu; zehazki, Juanastegi eta San Martin auzoak lotzeko aukera aztertu.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Eta bukatzeko 2 ohar... eta desio bat!

Helburuak beteta, pozik saioa oso ondo joan delako, tailerrari 2 oharrekin eman diogu amaiera:

- “Legazpi oinez” kanpainaren iragarkia, bihartik aurrera ikusi ahal izango da Urola telebistan.

“Legazpi oinez” kanpaina martxan da Legazpin eta bihartik aurrera horren ganean egin den iragarkia ikusi ahal izango dugu tokiko telebistan.



Dakizuenetz, Legazpiko Udalak eta Ilinti merkatarien elkarteak bultzatutako kanpaina da eta bi helburu ditu: L batetik, Legazpiko dendetan erostea bultzatu nahi da; eta bestetik, erosketa horiek oinez egitea sustatu nahi da, horretarako autoa erabiltzeko ohitura baztertuz.

Kanpaina berria, desberdina eta freskoa da; eta oihartzun handia izan du komunikabideetan, bai idatzizkoetan bai telebistan. Eta horren erakusgarri, hona hemen hainbat adibide!

Bideoa Gipuzkoa Telebistan: <http://www.gipuzkoa.tv/play.php?vid=2302>

Berria Hitzan: <http://legazpi.hitza.info/2011/04/06/erosketak-herrian-eta-oinez-egitea-sustatuko-duen-kanpaina-abiarazi-dute/>

Berria El Diario Vascon: <http://www.diariovasco.com/v/20110403/alto-urola/carros-paraguas-cortesia-20110403.html>

- Maiatzaren 14an, mendi-irteera egingo dugu (Korosti aldera) Aranzadi taldearekin.

Datorren maiatzaren 14an, larunbatean, Legazpiko ondare natural eta kulturalaren inbentarioa egiteko proiektuan aurreikusitako irteeretako bigarrena egingo da. Lan hori Legazpiko Udala egiten ari da Aranzadi elkartearen laguntzarekin.

Oraingoan, eta Aranzadi elkarteko adituen laguntzarekin, Korosti aldea bisitatuko dugu.

Legazpin dugun altxorren aberastasuna eta sekretuak ezagutzeko aukera paregabea da!



Eta horrekin, ... gertu ditugun Aste Santuko oporrak gustura hartu eta Santikutz jaietarako indarrak hartzeko erabil ditzazueta, hortxe bueltan daude eta!

Gure aldetik, Agenda 21eko Foroa, datorren maiatzaren 19an ikusiko dugu berriro elkar!

Ordura arte, izan ongi! Eskerrik asko!